

Without You: dirutza eta heriotza



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Londres, 1970eko uztaila. Abbey Road eta Trident estudioetan *No Dice* izeneko bigarren diskoko kantak grabatu zituen Badfinger talde galestarrak, tartean *Without You* balada akustikoa. Abestiaren hitzak eta estrofa Pete Ham taldekideak sortu zituen, baina ez zeukan errepikarik. Tom Evans kideak, aldiz, errepika indartsu bat sortua zuen eta bi zatiak batzea erabaki zuten. Gerora Richard Perry ekoizelak zera esango zuen: “Abesti desberdina zen garai hartan, erritmo oso markatua zeukan balada bikain bat. Orduz geroztik artista askok konposatu dituzte antzeko lanak, baina ordura arte ez zuten inork halakorik egin”. Lana urte hartako azaroan kaleratu zuten, baina ez diskoa ez abestia ez ziren bereziki nabarmendu.

Harry Nilsson musikari estatubatuarak grabazioa festa batean entzun zuen arte. Nahastuta, abestia The Beatles taldearena zela pentsatu zuen hasieran, baina Badfinger talde ezezagunarena zela jakin zuenean, bertsio bat grabatzea erabaki zuen. 1971ko urrian kaleratu zen eta sekulako arrakasta lortu zuen. AEBetako zerrendetan lehen postuan egon zen hainbat astez eta singlearen 800.000 kopia saldu ziren soilik Erresuma Batuan. Nilssoni esker Badfingerrek ere ospea eta diskoetxeekin baldintza hobeak lortzeko aukera eskuratu zituen.

*Without You*ren egile eskubideak tarte, eta Stan Polley agentearen eskutik,



DUELA 50 URTE GRABATU ZUEN BADFINGER TALDEAK *WITHOUT YOU* ABESTIAREN JATORRIZKO BERTSIOA. TOM EVANS (EZKERRETIK HASITA LEHENA) ETA PETE HAM (BIGARRENA) DIRA KANTAREN EGILEAK.

1975ean Warner Bros Records etxearekin kontratu hobetua sinatu zuten. Baina Polleyk diskoetxeak aurreratutako dirua hartu zuen eta desagertu egin zen. Lur jota, Pete Ham bere buruaz beste egin zuen apirilaren 24an, 28 urte bete baino hiru egun lehenago –eta hala, gutxiatik, 27koen klubean sartu zen–. Hainbat arrazoik bultzatuko zuten horretara, baina bere agur gutunean garbi utzi zuen agenteak egindakoak pisu handia izan zuela, bere azken hitzak hari eskaini baitzizkion: “P.D. Stan Polley sasikume bat da”.

Abestiaren beste egileak, Tom Evans, bide bera hartu zuen urte batzuk geroago, 1983an. Joey Molland taldeko gitarra kontatu zuenez, telefonoz *Without You*ren egile eskubideei buruzko eztabaida garrantza izan ondoren, bere etxeko lo-

ategiko zuhaitz batean urkatu zuen bere burua Evansek.

Harry Nilsson, berriz, 1994ko urtarrilean hil zen, bihotzekoak jota, eta handik astebetera, *Without You*ren beste bertsio bat merkaturatu zen, Mariah Carey abeslariarena. AEBetan Nilssonen bertsioak adina arrakasta izan zuen ia, baina Europar nabarmendu zen bereziki. Soilik urte hartan, Careyren singleak 500.000 dolarretik gorako sarrerak eragin zituen egile eskubidetan. Zati bat Ham eta Evansen familiek jaso zuten, baina oraindik luza-roan jarraituko zuten epaitegietan egile eskubideen banaketatik borrokan.

Mende erdia bete berri duen balada ederrak lasai bizitzeko aukera eman ziezaikeen bi egileei, eta, aldiz, heriotza ekarri zien. ●



Urak soildu zuen Tikal

Tikal hiri maia (egungo Guatemala) duela 2.300 urte inguru sortu zen, IX. mendean lortu zuen loraldia, 70.000 biztanle ingurura iritsita, eta hurrengo mendean abandonatuta utzi zuten. Orain arte jakina zen urak horretan eragina izan zuela, edo, hobe esanda, ur eskasiak, lehorteak eremu haiek gogor astindu baitzituen garai hartan. Baina Cincinnatiko unibertsitateko ikerlari talde batek ondorioztatu due-

nez, kantitateaz gain, uraren kalitateak ere izan zuen zerikusirik. Hiriko hainbat uharkatan merkurio arrastoak topatu dituzte, baita hainbat alga toxikorenak ere.

Urtegi haiek eliteak hornitzeko naiz erritual publikoetarako erabili ohi ziren. Hortaz, ur kaltegarriak agintarien ahulezia eta populazioaren zati handi bat batera pozoitzea eragin zuela uste dute adituek. ●